

A FITXA

Ametsetako ikasgela

- Ikasleei begiak ixteko eskatuko zaie, bi minutuz. Denbora tarte horretan gogokoa edo gustukoa izango zuten gela hori irudikatu eta pentsatu beharko dute:
 - ✓ *“Nolakoa imajinatzen dut nire ikasgela kuttuna?”*
- Ondoren, hausnarketarako tarte egongo da talde handian. Bakoitzak pentsatu edo imajinatu duen hori azaleratuko du.
 - ✓ *“Nolakoa da gela hori? Zer dauka gela horrek? Zein txoko imajinatzen dituzu gela horretan?”*
 - ✓ *“Zein gauza, tresna, objektu jarriko genuke?”*

*Nahi izanez gero, irakasleak behean dauden irudiak erakuts ditzake eta horren gainean aritu.

- Ikasleek irudikatutako ikasgela kuttunaren ezaugarriak arbelean jasoko dira, eta argazkia aterako dio irakasleak, hizkuntza-errutinean zehar gogoratu ahal izateko.
- Kontsigna gogorarazi ikasleei:
 - ✓ Pentsatzen joan zein objektu edo gauza kuttun ekarriko duten.
 - ✓ Hasieratik utziko zaie argi, haiek ekarriko duten objektua ez dutela inondik inora ere erosi behar.



B FITXA

Izar uxoa

- Irakasleak gela atontzeko objektu baten aurkezpena egingo du, izar uxoa, gerora ikasleek eredu gisara edukitzeko:
 - ✓ Hasieran ez da izar uxoa erakutsiko, ikasleek asma dezaten.
 - ✓ Polita litzateke eskuz margotutakoa izatea, ikasleek ikus dezaten ez dela erosi beharrik (beheko orrialdean eredu bat).
 - ✓ Izarraren istorioko larre berdea irudikatzen, esterila, zapi edo koltxoneta berde bat erabil dezake irakasleak.
 - ✓ Kontaketa **ahoz** egingo da, paperarik gabe. Ez dago nahitaez beheko adibidea kontatu beharrik, baina garrantzitsua da **EREDUTIK HURBIL EGOTEA** (antzeko eskema izatea eta letra larriz dauden egiturak agertzea). Izan ere, ikasleentzako langai izango dena jasotzen da.

*Benoa, pentsatu dut has gaitzkeela pixkanaka gela atontzen, eta horretarako nik oso kuttuna dudana gauzatxo bat **ekarri dut**. **Gauza handi bat da, bost punta ditu, horia da eta oso distiratsua**. Pentsatu dut **teilatutik zintzilik** jar dezakegula.*


(Azalpen hauekin ikasleren batek izar bat dela asmatu ezkerro.. edo bestela ere...iraskaleak jarraituko luke...)

Asko gustatzen zait niri udako gau goxoetan, lainorik ez eta oskarbi dagoenean larre batean etzan eta zeruari begira jartzea. Ez dakit jakingo duzuen, baino batzuetan argi distiratsu batzuk ere izaten dira hor goian. Horrelakoren bat ikustean desira bat eskatzeko ohitura dago eta hala egiten dut neuk ere.

(Ordurako agian ikasleek asmatuko dute izar uxoa dela)

*Istoriok kontatzen duenez, noizbait izar uxoa bat ikusten dugunean desio bat eskatuz gero, bete egiten omen da. Iruditu zait ideia polita izan daitekeela izar bat gure gelan izatea, horrela **baten batek desira edo nahi bat badu hari eskatzen ahalko diogu!***

- ✓ Aurkezpenaren eskema aterako da amaiera:
 - *Nolakoa da?*
 - *Non jarriko dugu?*
 - *Noiz erabiliko dugu edota zertarako baliatuko dugu?*
 - *Zer ekarri dut?*
- ✓ Argi utziko zaie, haiek ekarriko duten gauza ez dutela inondik inora ere erosi behar.



C FITXA

Ekoizpenaren ondorengo esku hartzea

Egituraren eskema (ikasleak haren aurkezpenean erantzun beharreko galderak) zein diren argi izatea garrantzitsua da:

- ✓ *Nolakoa da? Non jarriko dugu? Noiz erabiliko dugu edo/ eta zertarako baliatuko dugu? Zer ekarri dut?*

- Behin ekoizpena amaitutakoan, ikasleak ekarritako gauza erakutsiko du eta ekoizpenean ageri beharreko atal edo galdera guztiak esan dituen ziurtatuko dugu ikasleen laguntzaz, haiek ere, eskema hori barneratzen joan daitezen. Naturaltasunez, elkarrizketa atsegina sortuz. Esaterako:
 - ✓ *Ikaslea 1, zer esan du ekarri duela?*
 - ✓ *Ikaslea 2, eta nolakoa da? Ondo deskribatu al digu? Esan ez duen ezaugarriren bat gehituko zenuke?*
 - ✓ *Ikaslea 3, eta non jarriko dugula esan digu?*
 - ✓ *Ikaslea 4, gogoratzen al zara zertarako esan duen baliatuko dugula?*

Modu honetan, denok elkarrekin osatuko dugu eskema, eta gainontzeko ikasleen ulermena ona izan dela ziurtatuko dugu.

D fitxa

Zer / nolakoa?

- Taldeka jarriko dira ikasleak, txokoka (4naka esaterako), eta mahai gainean kartulinetan idatzitako hainbat adjektibo izango dituzte. Irakasleak objektu bat erakutsiko du (hurrengo orrialdean daudenak) eta ikasleek mahai gainean dituzten adjektiboen artean irudiarekin loturikoak aukeratu beharko dituzte.
 - ✓ 5 txanda egingo dira. Txanda bakoitzean, 4 adjektibo jarriko zaizkie mahai gainean (ikasle-talde guztiei berdinak) eta gauza guztiak banan-banan ahoz gora esango dira. Esaterako:
 - Irakasleak:
 - *Zer da hau?* (gurpil bat erakutsiz)
 - Ikasleek:
 - *Gurpila, errueda...*
 - Irakasleak:
 - *Nolakoa da gurpila? Aukeratu mahai gaineko hitz bat / pare bat.*
 - Ikasleek:
 - (ikasleek lau adjektibo izango dituzte parean) borobila, karratua, handia, txikia.
 - Horietako bat/ bi aukeratuko dituzte.
 - **Jarraian, bigarren gauza hartu eta adjektibo berberak erabiliz, egingo dugu dinamika.**
 - Ondoren, talde bakoitzak aukeratutako adjektiboa guztion artean partekatuko da eta ea egokiak diren erabaki.
 - Hurrengo orrialdean daude txandak eta gauzak (aukera dagoen kasuetan, irudia pantailean erakutsi beharrean, objektua bera ekarriko dugu gelara).

GAUZEN eta ADJEKTIBOEN ZERRENDA:

1.txanda:

- Agertuko diren adjektiboak:

- Borobila / karratua
- Handia / txikia

- Gauzen zerrenda (banan-banan erakutsiko dira): gurpila / luma/ etxe (zaharra) / artilea / zuhaitza.

2.txanda:

- Agertuko diren adjektiboak:

- Pisutsua / arina
- Argia / iluna

- Gauzen zerrenda (banan-banan erakutsiko dira): gurpila / luma/ etxe (zaharra) / artilea / zuhaitza.

3.txanda:

- Agertuko diren adjektiboak:

- Polita / itsusia
- Zaharra / berria

-Gauzen zerrenda (banan-banan erakutsiko dira): gurpila / luma/ etxe (zaharra) / artilea / zuhaitza.

4.txanda:

- Agertuko diren adjektiboak:

- Luzea / motza
- Gogorra / biguna

- Gauzen zerrenda (banan-banan erakutsiko dira): gurpila / luma/ etxe (zaharra) / artilea / zuhaitza.

5.txanda:

- Agertuko diren adjektiboak:

- Altua / baxua
- Koloretsua / kolore bakarrekoa

- Gauzen zerrenda (banan-banan erakutsiko dira): gurpila / luma/ etxe (zaharra) / artilea / zuhaitza.

IRUDIAK (aukera dagoen kasuetan, irudia pantailean erakutsi beharrean, gauza bera ekarriko dugu gelara).











E FITXA

Zer / nolakoa?


- **Musika kaxaren jolasa:**

Kaxa batean gauzen argazkiak sartuko dira. Borobilean jarrita, ikasleek batak besteari pasa beharko diote kaxa, musika martxan dagoen bitartean. Musika gelditzen denean, kaxa egokitu zaion ikasleak, iruditxoetako bat atera beharko du barrutik (objektu erreala izango balitz, saiaturako gara albokoek objektua ikus ez dezaten), eta eskuinean eta ezkerrean dituen ikasleen laguntzarekin objektua deskribatu beharko du, gainontzeko ikasleek asma dezaten.

- ✓ Jolasa hasi aurretik kaxan dauden objektuen izenak, arbelean idatziko dira, gainontzeko ikasleek asmatzeko erraztasun gehiago izateko.
- ✓ Jolasean zehar, aurreko egunetan ikasitakoa baliatzen saiaturako gara (kartulinean idatzi direnak).
- ✓ ZEREZKOA lantzen: askotan objektuen ezaugarritzerako “zerezkoa” den esateak lagundu egiten du. Beraz, jolasaren hasiera hasieratik ez, baina aurrera egin ahala, irakasleak galdera hau bideratuko du:
 - “ZEREZKOA izan daiteke?”
 - Plastikozkoa, egurrezkoa...

OBJEKTUEN ZERRENDA:

-Liburua	-Aulkia	-Erratza
-Baloia	-Autoa	-Lorea
-Kometa	-Betaurrekoak	-Itsasoa
-Igerilekua	-Txapela	-Arkatza
-Begia	-Mendia	-Soka
-Ponpoia	-Erlojua	-Atea
-Hondarra	-Danborra	-Telebista







F FITXA

Zer / nolakoa? NON?

- **Ezkutaketetan izarrarekin**

Helburua: gelan oraindik bete gabe dauden lekuak aprobetxatuta, lekuei erreferentzia egiteko hitzak ikastea izango da.

Ikasleak binaka jarriko dira eta izar bat banatuko zaio bikote bakoitzari (B fitxako izarra baliatu). Bikoteak gelan erabilia ez dagoen leku bat pentsatu beharko du izarra jartzeko. Lehenik, ahoz adieraziko du non pentsatu duen jartzea, eta ondoren, bertan kokatuko du.

- ✓ Irakasleak laguntza emango die galderen bitartez: *zerEN / norEN... gainean /azpian, ondoan, goian / behean, ezkerrean /eskuinean, atzean / aurrean, kanpoan / barruan?*
- ✓ Adibidez:
 - *“Zeren gainean jarriko duzue izarra? Zeren ondoan dago? Zer du ezkerrean?...”*

Pixkanaka galdera hauek desagertzen joatea izango da helburua, ikasleek egitura berriak barneratu ahala.

G FITXA

Zertarako?

- Ikasleek azalpena bukatutakoan eta ekarritakoa erakustean, irakasleak galdera batzuk egingo dizkie ikasleei. Ariketa honen helburua da “zertarako” galderari erantzuteko –T(Z)EKO egitura lantzea:

*“-Aizue ondo azaldu al digu X ikasleak ekarritakoa? Zerbait gehiago gehituko zenukete? Non esan digu jarri dezakegula? Eta **zertarako**, esan al digu **zertarako** erabiliko dugun?”*

*-Jada, gauza dezente ekarri ditugu! Gogoratuko ditugu orain arte ekarritako batzuk **zertarako** baliatuko ditugun?”*

- ✓ Ordura arte aurkeztutako gauzak zertarako erabiliko diren gogoratuko dugu denon artean (soilik ikasle erdien objektuak. Hurrengo egunean, gainontzeko ikasleenak).
- ✓ Ikasleek emandako erantzunekin arbelean sailkapen bat egingo dugu. Alde batean ZERTARAKO balio duten idatziko da, eta pareko zutabeetan, GAUZA. Adibidez:

-Desioak eskaTZEKO	→	izarra...
-JolasTEKO:	→	...
-Gela apainTZEKO:	→	...

- Ondoren hausnarketa egingo da: helburu edo zergati bat asko errepikatzen bada ea benetan hori lortu nahi genuen galdetuko da. Ea apainduta bakarrik nahi dugun edo soilik jolasteko diren gauzez beteta esaterako.... *“Ez al da hobeto denetik izatea?”*

H FITXA

Hitzen labirintoa


Egunetik egunera azaltzen diren hitz ezezagun eta berriak, papertxoetan idatzi eta kutxa batean gordeko dituzte ikasleek. Noizean behin (materialean adierazita dagoenen, edo irakasle-ikasleak gogotsu daudenean), bost papertxo aterako ditugu Pandoraren kutxatik:

- ✓ Ateratako hitza/egitura guztiok ezagutzen badugu → papera kutxatik libratu egingo da.
- ✓ Ateratako hitza/egitura ez badugu guztiok ezagutzen → papertxoa kutxa barruan sartuko dugu berriz ere, hurrengo baterako.

I FITXA

Eguzki-lorea:

- Hainbat etxetan aurkitzen ditugu eguzki-loreak zintzilik...zertarako jartzen ote dira? Lehenengo atala (gela atontzen) bukatzeko modu polita izan daiteke ikasleei eguzki-lorearen kondaira kontatzea, ahoz azalduko da.
 - ✓ *Lagunak, bigarren egunean izarra ekarri nuen, gogoratzen al duzue? Ba...zalantzak izan nituen. Zalantzetan ibili nintzen izarra ala eguzki-lorea ekarri... ba al dakizu zer den eguzki-lorea...etxeetan askotan jartzen da....zertarako?*
 - ✓ Kondaira:
<http://ingurumenaetaahaurhezkuntza.blogspot.com/2011/04/eguzkilorea.html>
 - ✓ Kondaira ahoz azaldu ondoren, nahi izanez gero, Iruñeako ikasle batzuen antzezlanak ikusiko dugu elkarrekin, ziurtatzeko ulertu duguna:
<https://www.youtube.com/watch?v=VZgC33bqB64>
Bideoa ikusteko arazoak izanez gero, ikertzaileari jakinarazi.
 - ✓ Aukeran: ikasleei eguzki-lorea emango zaie, nahi izanez gero etxean margotzeko (Hurrengo orrialdean dago irudia).



J FITXA

Pipi Kaltzaluze:

Pipi Kaltzaluze izango da irakaslearen eredu, ikasleei aurkeztuko dien pertsonaia. Bere datuak eta ezaugarriak azalduko dizkie, eta baita hura aukeratzearen zergatia ere. Horretarako argazki batez (ondorengo orrian dago) baliatuko da irakaslea eta aurkezpenarekin hasi aurretik, ikasleei galdetuko die ea argazkikoa ezagutzen ote duten.

“Begira argazki honi, hau da nik aukeratutako pertsonaia, gure gelakide berria izango dena. Zuetako norbaitek ezagutzen al du?”

Badakizue nor den?

*Ba bai, Pipi Kaltzaluze da, **Pipi Langstrump jatorrizko suedieraz (suediera Suedian eta Finlandiako kostaldean hitz egiten den hizkuntza bat da).***

Guk batez ere, Pipi telebistan edo zineman ezagutu genuen. Baina, ez zen hor sortu... badakizue nola sortu zen? Idazle batek, Ingrid izenekoak, sortu zuen Pipi. Liburu asko idatzi zituen, eta bertan kontatzen zituen Pipiren abenturak. Eta liburu hori, **ehun hizkuntza baino gehiagotara itzulita** dago!! Oso famatua egin zen.

*Pipi, neska **koskor** bat da eta bere zaldiarekin (osaba **txiki**) eta tximinoarekin (Nilson jauna), bizi da bere etxetxoan, Mozolomendi etxetxoan. Gainera, bere lagun maiteak dira honako hauek ere: urrez betetako maleta bat, eta, txokolatea eta limonada ematen dizkion zuhaitz bat.*

Badakizue nolako den?

***Pipik kolore biziko** galtzerdi **luzeak** janzten ditu, eta beti bere zaldi **zuri** eta **pinttoarekin** ibiltzen da hara eta hona. **Alaia, ausarta eta oso indartsua** da. Bere lagunekin jolastea gustuko du, baina **bihurri xamarra** ere bada. Aurpegi **biribila** eta **pekez** josia/beteta dauka eta bere ile **gorria** bi **mototsekin** biltzen du, motots bakoitza belarriaren **gainean** geratzen zaio.*

Badakizue zergatik aukeratu dudan?

*Pippi Kaltzaluze, oso-oso aspaldi sortu zen, pentsa, zuen gurasoak oraindik jaio gabe zeuden. Garai haietan, telebistan ez **zen sekula agertzen buruargia, eta are gutxiago alaia zen neskatilarik**. Eta Pipik ezaugarri horiek baditu.*

*Txikiagoa nintzenean, asko gustatzen zitzaidan bere bideoak ikustea. Pipik aske izatea oso maite zuen neskatila zen, horregatik aukeratu dut bera. Bere bihurrikeriekin etxeko guztiak **barrezka jartzen** gintuen. Baina, kontuz, bihurrikeriekin **ez die inguruko lagunei minik egiten**, eta hori ere garrantzitsua da gure gela apaintzeko.*

*Nik argazki hau gelaren atzeko aldean dagoen apal horren **erdi-erdian** jarriko nuke. Zer iruditzen zaizue? Horrela badirudi beti guri begira dagoela.*

Bihar haren bideo bat ikusiko dugu hobeto ezagutzeko!”



K FITXA

Aurkezpenetarako eskema.

Bai irakasleak egin duen pipiren aurkezpenean, eta baita ondoren, ikasleek egingo duten aurkezpenean ere, oinarrian **antzeko eskema baliatuko** da.

- Horretarako 1. azpigaiko eskema gogora ekarriko dugu guztion artean, eta hortik abiatuta, bigarrenaren eskema aterako dugu.
- Laguntza moduan, arbela balia dezakegu: lehenik ezkerreko zutabea osatu denon artean, eta ondoren, eskuin aldekoa.
- Ikasleek koadernoan idatziko dute hemendik aurrera erabiliko duten eskema, gida moduan.

1.GELA BERRIA ATONTZEN (eskema)	2.GELAKIDEAK EZAGUTZEN (eskema)
<p>-Nolakoa da? (kanpo-itxura)</p> <p>-Zertarako ekarri dugu</p> <p>-Non, gelako zein tokitan jarri nahi dugu?</p> <p>- Zer da?</p>	<p>-Nor da?</p> <p>-Nolakoa da? (kanpo-itxura + izaera)</p> <p>-Zergatik ekarri/ aukeratu dugu?</p> <p>-Non, gelako zein tokitan nahi dugu jarri?</p>

- Behin eskema koadernoan kopiatuta, saiatuko gara Pipiri buruz dakiguna, eskema horretara ekartzen. Galdera bakoitzeko erantzun pare bat nahikoa litzateke. Helburua da eskemarekin trebatzen hastea.

L FITXA

Pipiren bideoa amaitzean eta jada Pipi gehixeago ezagututa, denen artean haren ezaugarriak bilduko dira arbelean:

- Horretarako zutabeak egingo dira ereduan azaltzen den bezala: nolakoa da kanpotik / nolakoa da barrutik.
- Denen artean, **elkarrizketa bidez, edo galdera- erantzunen bidez osatuko** da informazioa. Esaterako, ikasle batek zuzenean adjektiboa (ilegorria da) esaten badu, guztion laguntzarekin esaldi bidez adierazten saiatuko gara. Beste zentzuan berdin jokatuko da.
- Izaerarekin lotutako adjektiboak berriak dira ikasleentzat, hortaz, “zer egiten du?” galderari erantzuten saiatuko gara, eta hortik, adjektiboa aterako dugu, hau da, ekintzetatik abiatuko gara.

Kanpo itxura ↔ nolakoa da (itxura)	Zer egiten du? ↔ Nolakoa da (izaera)
-Ilegorria ↔ ilea gorria du -Pekaduna ↔ pekak ditu -Alaia ↔ pozik/alai dago -Txikia ↔ ez da altua -Argala ↔ ez du asko pisatzen -Bi trentza ditu -... (adjektiboetatik harago, esaldiak ere ipin daitezke)	-Bidaiatu egiten du ↔ bidaiaria eta abenturazalea da -Azkar mugitzen da ↔ bizkorra da -Lagunekin jolasten du ↔ jostaria eta lagun ona da -Gauza barregarriak eta bihurrikeriak egiten ditu, eta barre egitea gustatzen zaio ↔ barregarria, bihurria eta alaia da -Ez du beldurrik eta helduek egin ezin dituzten gauzak egiten ditu ↔ ausarta da -Gauza zaharrak konpontzea eta bere gustura jartzea gustatzen zaio ↔ irudimentsua eta langilea da -Gauza pisutsuak erraz jasotzen ditu ↔ indartsua da

M FITXA

Denon artean, bi bikoteek egindako aurkezpenak osatuko dira.

- **Diskurtsoa osatzen**

- ✓ *Gainerakoek ezagutzen zenuten aurkeztu duten pertsona / pertsonaia?*
 - Erantzuna baiezkoa bada: *zerbait gehituko zenukete?...*
 - Erantzuna ezezkoa bada: *esandakoaz aparte zer gehiago jakin nahi duzue?* Helburua informazioa osatzen joatea da.

- **Zuzenketak eta zehaztapenak**

- ✓ *Erabili dituzten hitzak ulertu dituzue?*
 - Ikasleek ez badute erantzuten, irakasleak proposa ditzake hitz batzuk.
- ✓ *Egon al da gaztelaniazko hitzik?*
 - Halako hitzen bat egon bada: *nola esango zenukete zuek beste modu batean, hobeto ulertzeko? Eta euskaraz?*
- ✓ Beraz, hurrengorako zer hartuko dugu kontuan?

****Gogoratu, azaltzen diren hitz berri eta ezezagunak "Hitzen labirintoen kutxan" sartuko ditugu.**

N FITXA

Estrategiak I. ZEIN TOKATU ZAIT?

Birformulatzeko estrategiak.

Sarritan gertatzen da ikasleek ez dakitela hitz bat esaten; kasu horietan, gaztelaniara jo ordez, euskaraz beste modu batean esan dezaten sustatzea da gure helburua.

Horretarako, kutxa batean irudi desberdinak sartuko ditugu, kirolak eta lanbideak adierazten dituztenak, esaterako: igerilaria, suhiltzailea, korrikalaria, mendizalea, futbolaria... Lauzpabost ikasleek irudi bana aterako dute kutxatik, eta tokatu zaiena esango dute: “Niri suhiltzailea tokatu zait” esango dute, “suhiltzailea” esaten baldin badakite.

Hitzaz gogoratzen ez badira (edo gogoratzen badute ere), irakasleak honela lagunduko die: “**zer egiten duena** tokatu zaizu?”, eta ikasleak erantzungo du “tokatu zait sua itzaltzen duena”. Orduan, ikaskideei galdetuko diegu: “**eta nola deitzen zaio** sua itzaltzen duenari?”. Helburua da guztion artean “suhiltzailea” hitzera iristea, eta zer egiten duen adieraztera.

Ñ FITXA

Estrategiak II. Ikasleak birformulatzen.

Dinamika hau N fitxaren antzekoa da. Zerbait esaten ez dakitenean, hori beste modu batean esaten irakastea da helburua, estrategia konkretu bat baliatuz. Kasu honetan ordea, egun horretan ikasleek egindako ekoizpenak baliatuko ditugu hitz edo egitura berriak birformulatzeko:

- Ikasleen ekoizpenen aurretik, entzuleei papertxo bat banatuko zaie. Bertan jasoko dituzte gaztelaniaz entzuten dituzten hitzak edo egoki ez direnak/arraro egiten zaizkienak.
- Ekoizpenen ondoren, ikasleei galdetuko diegu ea papertxoan hitz/egituraren bat idatzi duten:
 - Adibidez: *“nadador” Nola esaten da nadador euskaraz? “Nadador” denak zer egiten du?...*
 - *Igeri egiten du, pizina gustatzen zaio, uretan ibiltzen da...*
- Ikasleei ahotsa ematen saiatuko gara bereziki.

O FITXA

Estrategia III. Diskurtsoa garatzen.

- **Diskurtsoa garatzen.**
 - ✓ *Eta zer gustatzen zaio zure pertsona/ pertsonaiari/ X-ri?*
 - Zuzenak diren erantzunak bultzatuko dira. Adibidez: *mendian ibiltzea / **mendia** / mendira joatea/ ...*
 - ✓ Zer egiten du eta norekin?
 - Zuzenak diren erantzunak bultzatuko dira. Adibidez: *mendira joan / mendira joaten da/ ...*
 - ✓ **Norekin egotea gustatzen zaio? Non egotea gustatzen zaio?**
 - Zuzenak diren erantzunak bultzatuko dira. Adibidez: *etxean / etxean gustatzen zaio / bakarrik / ez dakit...*

****Gogoratu, azaltzen diren hitz berri eta ezezagunak “Hitzen labirintoen kutxan” sartuko ditugu.**

P FITXA

Aukeran: ikasleen beharren arabera, bi dinamiketarik bat proposatuko dugu.

- **NI NOLAKOA NAIZ?**

Orain, gure artean egingo dugu jolas. Nolakoa naiz ni? Nolakoa kanpotik, nolakoa barrutik?

- ✓ Ikasleei minutu bat utziko diegu pentsatzeko.
- ✓ Behar izanez gero, irakasleak galderak egingo ditu informazioa osatzeko. Horretarako, ordura arte landutakoa baliatuko da:
 - *Eta zer gustatzen zaizu? Zer egiten duzu, norekin? Norekin egotea gustatzen zaizu, non?...*
- ✓ Loturak egin daitezke ikasleen artean: baten bati gustatzen al zaio mendia ere bai? Eta, baten bati ez al zaio gustatzen mendia?...

- **MAITE ZAITUT**

Orain, gure artean egingo dugu jolas. Zergatik maite zaitut? Edo maite zaitugu? (lexikoa eta “zergatik?” galderari erantzuteko forma lantzeko dinamika).

Guztiok borobilean kokatuko gara, baina, gelakide bat (irakaslea izan daiteke) borobil erdian jarriko da eta berak hartuko du hitza:

- ✓ Borobil erdian dagoenak, beste gelakide bati: Maddi maite zaitut, maite zaitut...
- ✓ Maddi: Zergatik?
- ✓ Borobil erdian dagoenak: betaurrekoak dituzulako!
- Hau esanda, borobilean dauden betaurrekodun guztiak lekuz aldatu beharko dira eta borobilaren erdian dagoenak ere, borobilean dagoen betaurrekodun baten lekua hartu beharko du berriro bera erdian gelditu ez dadin.
- Lekurik gabe gelditzen dena izango da hurrengoa, erdian kokatu eta beste gelakide bati galdera egiten:
 - ✓ “-maite zaitut, maite zaitut... -Zergatik? -begi berdeak dituzulako!”

Ikasle guztiei gutxienez behin maite zaitut esan diezaioten saiatuko gara denen artean.

Adibide gisa: <https://www.youtube.com/watch?v=wSnJn4apsc>

Q FITXA

- Ikasleek 2. azpigaian gelara ekarri eta aurkeztu dituzten **gelakide berriak aitzakia polita dira atzetik dituzten balioez hitz egiteko**. Hala, ariketa honen helburua da:
 - Balioen inguruko **solasaldi ireki eta jostagarri** bat egitea.
 - Ikasleek ez dute ekarritako gelakide bakoitzaren balorazioa egingo, balorazio **orokor bat egingo dute**. Ikasleak maila pertsonalean interpelatuak sentitzea saihestu behar da.
 - **Aniztasuna aberastasun gisa landuko dugu**. Izaki, pertsona, kultura eta hizkuntzen arteko berdintasuna eta desberdintasunak hobeto ulertzeko.
- Balioez hitz egiteko ariketa hau bi zatitan banatuko dugu.

1.ZATIA

- **Gaiaren aurkezpena** egingo dugu, ondoren, ikasleak **taldeka antolatuko** ditugu (3 edo 4 ikasle talde bakoitzean). Taldeetan ikasleek bi lan egingo dituzte: diferentziaren jolasa eta desorekak identifikatzen.

✓ **GAIAREN AURKEZPENA:**

Zorionez askotarikoak gaude munduan. Hala ere, gauza batzuetan gure mundua desorekatuta dago...

Baina, gogoratu, gu euskaldunak gara eta euskarak munduari begiratzeko modu bat eskaintzen digu (begirada amaitua edo itxia ez dena; etenik gabe guztion artean osatzen eta berrosatzen joaten garena baizik).

- ✓ **DIFERENTZIAREN JOLASA:** ikasleek gelakide berrien artean ikusten dituzten diferentzien zerrenda bat egin beharko dute: *“Eman diezaiogun begirada bat gela berrituari: Zeintzuk dira gelakide berrien artean azpimarragarriak iruditzen zaizkigun diferentziak?”*
 - Taldekako lana: ikasleak taldeka arituko dira, baina, irakaslea banan-banan taldeetatik pasako da laguntza emateko.
 - GARRANTZITSUA: ez zaie diferentzien arabera gelakideak multzokatzeko edo sailkatzeko eskatuko; ezta ere, diferentzien arabera binomioak sortzeko ere. Gelakide berrien artean dauden diferentzien zerrenda bat egitea da kontua: dibertsitate edo aniztasunak aberastu egiten gaituela azpimarratze aldera.

- ✓ **DESOREKAK IDENTIFIKATZEN:** gelakide berrien osotasunari begiratuta, identifikatzen dituzten desorekak jasoko dituzte: gelakide berrien **jatorria**, **generoa**, ezaugarri **fisikoak** edota gelakide berriek **indarkeriarekin** daukaten loturaren ikuspegitik begiratuta.

OHARRAK:

Lanari ekin aurretik “desoreka posibleak” aipatzeko hitza hartuko da:

 - Desoreka posible bat: generoa.
Zenbat mutil-gizon (ar) eta zenbat neska-emakumezko (eme) daude gelakide berrien artean? Parekidetasuna baldin badago goraiatu. Bestela, hausnarketa txiki bat egitea proposatu: Zer esan nahi du horrek? Zergatik ekarri dira mutil gehiago neskak baino?
 - Beste desoreka posible bat: jatorria (erreferentzia kulturalak).
Gelakide berrien artean zenbat dira bertakoak? Zenbat dira europarrak? Zenbat amerikarrak? Ba al dago Afrikako edo Asiako gelakide berririk? Zeintzuk dira euren jatorrizko hizkuntzak?
 - Hirugarren desoreka posible bat: indarkeria.
Gelakide berriak gehienbat indarra erabiltzen dute, ala elkartasuna, begirunea? Zein jokabide?

2.ZATIA

Guztiok elkarrekin arituko gara, ASANBLADAN:

- Taldeka egindako ariketaren ondorioak aurkeztuko dituzte.
- Asanbladan ondorio orokor batzuk ateratzeko ahalegina egingo da, guztiok elkarrekin.

OHARRAK:

- Ondorio orokorrak ateratzeko ahalegina egingo da. Irakasleak honakoak aipatuko ditu, eta ikasleei euren iritzia eskatu (ikasleak ez ditugu alde dauden edo ez esatera bultzatu behar, ariketa osoan zehar oso presente izan behar dugu hasierako helburua: balioez era ireki batean hausnartzea):
 - ✓ Aipatu diren diferentziek **gelakide berri guztiak desberdinak** direla erakusten dute.
 - ✓ Dena den, **berdinak dira aldi berean**.
 - ✓ Bizikidetzarako beharrezkoa da *elkarren artean dauden diferentziak baloratzen jakitea, eta, aldi berean, elkarren arteko harremanak berdintasunean oinarritzea: diferentzia jatorria, hizkuntza, generoa edo dena delakoa izanik ere. Ez da onargarria pertsona edo giza-taldeen arteko diferentziak, desberdintasunak edo jazarpenak ezartzeko erabiltzea. Onargarria ez den bezala, berdintasunaren izenean diferentziak ezabatu nahi izatea.*

ASANBLADAREKIN AMAITZEKO:

- Aukera emango dugu gure pertsonaiak/izaki bizidunen zerrenda osatzeko. Datozen egunetan nahi duenak beste izaki bizidun bat ekartzeko aukera izango du, esaterako.

R FITXA

Ondotestua

Lanketa guztiaren amaierara iritsita, azkeneko ekoizpenera begira ipiniko gara. Azkeneko aurkezpen hauetan, ondoko gelakoei sortutako gela berria erakutsiko diete ikasleek, ASMAKIZUN MODUAN.

- ONDOTESTUA:
 - Aurkezpena egin behar duen ikasle bakoitzak, gelako pertsona edo objektu baten argazki bat aterako du zakutik eta besteei erakutsi gabe, azaldu egingo die.
 - Azalpenerako eskema jarriko da, behar izanez gero, laguntza moduan. Bestela irakasleak egunean bertan erakuts dezake: **S FITXA**.
 - Aurkezpena egingo duen ikasleak bukatutakoan, ondoko gelako ikasleek asmatu egin beharko dute zein den azaldu duen gauza edo pertsona; ingurura begiratuta, gelako txokoren batean aurkitu beharko dute.
 - **Taldeak egiterako momentuan, talde berean jarriko ditugu GRABATUAK IZAN BEHAR DUTEN IKASLEAK, alegia, 1.azpigaiko 4 eta 5. egunean grabatu genituen ikasleak.**
 - IRAKASLEAK TESTUINGURATU:

Gelari osotasun bat emateko, ondoko gelakoak gela berria ezagutzera etortzen direnean, irakasleak hartuko du lehenengo hitza eta sarrera bat egingo du egindako aldaketak labur-labur azalduz:

“Egun / arratsalde on! duela aste batzuk, gure gela benetan gustatzen zitzagun pentsatzen jarri ginen, eta denen artean erabaki genuen aldaketa batzuk ondo etorriko zitzazkiola gure gela kuttunari.

Lehenengo, gelan zeuden gauzei begiratu bat eman, eta ikusi genuen kuttunak genituen gauza batzuk falta zitzazkigula. Orduan, gelakide bakoitzak gustuko genuen gauza bat ekarri genuen etxetik eta behin azalduta, leku ezberdinetan kokatzen joan gara.

Gero, gustuko genituen pertsonak gure gelakide berri bilakatu genituen. Bakoitzak, gustuko zuen pertsona edo pertsonaia bat aukeratu genuen eta gure artera ekarri genituen banan bana.

Horrela, hau da sortu dugun gela kuttunaren emaitza, eta zuek gure gela berri hau pixka bat hobeto ezagutzeko, jolas bat egin nahiko genuke zuekin.


Zaku batean, gelara ekarri ditugun gauza eta gelakide berrien argazkiak sartu ditugu eta banan bana argazkiak atera eta asmakizun modura, argazkikoa azalduko dizuegu. Zuek, argazkia ikusi gabe eta azalpena etzunda, aurkezten den argazkiko hori zer den eta non dagoen asmatu beharko duzue, ADOS? EA BA!”

- MATERIALA PRESTATU

- MATERIALA PRESTATU:
 - Zaku baten, gure gelara ekarritako gauza eta gelakideen argazkiak sartuko ditugu
- ANTOLAKETA

Ikasturte berdinean 2 ikasgela badaude:

Gelak bitan zatituko dira eta egun batean erdia ondoko gelara joango da haien gela ikustera eta bestea gelan bertan geldituko da ondoko gelakoei ikasgela berria erakusten eta hurrengo egunean alderantziz.



A GELA

B GELA

1. EGUNA

-A gelako berdeak eta B gelako berdeak A GELAN elkartuko dira (A gelako berdeak gela erakusten eta B gelako berdeak entzule)

-A gelako arrosak eta B gelako arrosak B GELAN elkartuko dira (A gelako arrosak entzule eta B gelako arrosak gela erakusten)

2. EGUNA

-A gelako berdeak eta B gelako berdeak B GELAN elkartuko dira (A gelako berdeak entzule eta B gelako berdeak gela erakusten)

-A gelako arrosak eta B gelako arrosak A GELAN elkartuko dira (A gelako arrosak gela erakusten eta B gelako arrosak entzule)

Ikasturte berdinean 3 ikasgela badaude:

Gelak hirutan zatituko dira eta egun bakoitzean talde batek erakutsiko du gela, gainerakoak beste gelak ezagutzen ari diren bitartean.



A GELA

B GELA

D GELA

1. EGUNA: Horiak A gelan, urdinak B gelan, gorriak D gelan

S FITXA

IKUSI MAKUSI, zer edo nor?

-Gauza edo pertsonaia hau **nolakoa** da?

-**Non** dago jarrita?

GAUZA BAT BADA: **zertarako** ekarri duzue gela berrira?

KIDE BERRI BAT BADA: **Zergatik** ekarri duzue gela berrira?